



Lakuntzako eraikinak lehen aldiz erabiltzeko lizentziak emateko tasa arautzen duen udal ordenantza fiskala. Behin betiko onespena

Lakuntzako Udalak, 2006ko urriaren 27ko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Lakuntzako eraikinak lehen aldiz erabiltzeko lizentziak emateko tasa arautzen duen udal ordenantza fiskala. Onespenezaren erabakia 2006ko 138. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, azaroaren 17an.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betikoz onetsi da eta ordenantza osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraikiz.

Lakuntzan, 2008ko uztailaren 21ean.-Alkatea, Jose Ramon Garin Lizarraga.

ERAIKINAK LEHEN ALDIZ ERABILTZEKO HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I.-Oinarria eta izaera

1. artikulua. 1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 262. artikulua emandako ahalmenak erabilia eta Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100.etik 108.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, Lakuntzako Udalak, eraikinak lehen aldiz erabiltzeko lizentziak emateko tasa ezarri du, honako ordenantza fiskal honen bidez arautuko dena:

2. Aplikarriak diren lege zehatzen arabera eta bidezkoak diren baimenak ezertan ukatu gabe, lizentzia beharko da eta, beraz, ordenantza fiskal honi lotuta egonen dira 189.h) artikulua arabera eraikinak edo instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeko.

II.-Zergapeko egintza

2. artikulua. Tasaren zergapeko egintza eratzen da Udalak jarduera tekniko eta administratiboak egiten dituen ondokoak egiaztatzeko:

a) Altxatutako eraikina eta aldi berean egin den urbanizazioa, halakorik bada, proiektu teknikoaren eta bere garaian emandako hirigintza lizentziako baldintzen arabera egin direla.

b) Eraikitakoak bizigarritasun eta higiene baldintzak betetzen dituela.

c) Eraikina erabilera jakin baterako izan daitekeela.

d) Eraikitzaileak, hirigintzako ekipamenduari zein elementuei kalte egin badie, lehengoratu dituela.

Hori guztia, eraikuntzako hirigintza eta txukuntasun arauak jarraikiz eta Lakuntzako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearekin bat.

III.-Subjektu pasiboa

3. artikulua. Zergapeko subjektu pasiboak dira Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 104. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoak eta entitateak.

IV.-Karga oinarria

4. artikulua. Etxebizitza unitatea izanen da ordainarazpen honen oinarria, tipologia kontuan hartu gabe, eta okupaturiko metro karratu erabilgarria, irekitzeko lizentzia behar ez duten lokaletarako.

V.-Tributu kuota

5. artikulua. Ondoko arauak jarraituko zaie tributu kuota finkatzeko:

- a) Lehenbiziko erabilera eta erabilera aldaketa, eraikin eta instalazioetan, oro har: 250 euro, etxebizitza unitate bakoitzeko, tipologia kontuan hartu gabe.
- b) Kopuru bera ordainduko da okupaturiko 200 metro karratu erabilgarri bakoitzeko edo zatiki bakoitzeko, irekitzeko lizentzia behar ez duten lokaletarako, eta azken kasu horretan, gehienez ere 136 euro.

VI.-Salbuespenak eta hobariak

6. artikulua. Tasaren ordainarazpenak ez du salbuespenik edo aldaketarik onartuko, salbu eta Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrietan honako hauen alde zehazten direnak: Foru Komunitateko Administrazioa, mankomunitate nahiz batasunak eta haiek berek sortutako entitate publikoak, betiere aipatu aginduetan zehazten diren kasuetan.

VII.-Sorrarazpena

7. artikulua. 1. Tasa sortzen da eta ordaindu beharra dago zergapeko egintza dakarren udal jarduera hasten den unean. Ondorio horiei begira, hirigintza lizentzia lortzeko eskabidea noiz aurkeztu, jarduera halako egunean abiarazi dela ulertuko da, betiere subjektu pasiboak halako eskaerarik egiten bada.

2. Eraikina erabiltzen hasten bada behar den lizentzia lortu gabe, erabilera baimentzeko modukoa den ala ez zehaztuko duen udal jarduera benetan abiarazten denean sortuko da tasa; horrez gain, legezkotasuna lehengoratzeko zehapen espediente administratiboa abiaraziko da, hala behar bada.

VIII. Kudeaketa arauak

8. artikulua. 1. Ordainarazpena sortu dela joko da ordenantzaren 7.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz ordaindu beharra sortzen denean. Eskabidea aurkeztearekin batera ordaindu beharko da tasa, bestela ez baita espedientea tramitatuko.

2. Lizentzia lortzeko interesa dutenek behar den eskabidea aurkeztuko dute Udalean, lehen aldiz okupatzeko lizentziak arautzen dituen ordenantzari jarraikiz.

3. Oro har, ordainarazpen zuzena aplikatzeko behar den informazio guztia jaso beharko da eskabidean.

4. Lizentzia administrazioaren isiltasunaren bidez lortzeari dagokionez eta ezkutuan egindako obrei doakienez, honako arau hauetan xedatutakoari jarraikiko zaio: Toki Araubidearen gaineko legeetan, Lurzoruari buruzko Legean, Hirigintzako Diziplinaren Erregelamenduan eta haiekin bat heldu diren xedapenetan.

AZKEN XEDAPENA

Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 65.2 artikulua aplikatuz, ordenantza honek, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat behin betikoz onetsitakoan, indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak izanen ditu, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN testua oso-osorik argitara eman ondoan.

Ordenantzak berariaz aldatu, berrikusi edo indargabetu arte izanen du indarra.

Iragarkiaren kodea: L0811755